## ERRENTERIAKO UDALA

### Trafiko eta Garraio Departamentua

*Iragarkia*

2013ko uztailaren 18an Udalbatzak egindako ohiko osoko bilkuran aurkeztutako alegazioa ebatzi eta erabaki zuen Errenteriako Auto-Taxi Zerbitzuaren Udal Ordenantzari behin betiko onarpena ematea.

Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, onartutako Errenteriako Auto-Taxi Zerbitzuaren Udal Ordenantza horren testu oso-osoa argitaratzen da eta argitaratzen denetik 15 lanegunera sartuko dela indarrean adierazten da.

Eta orohar guztiek jakin dezaten eta eraginak izan ditzan argitaratzen dut. Era berean, jakinarazten da akordio honek administrazioaren bidea agortzen duela eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.

Hau da onartu den Ordenantzaren testua:

ERRENTERIAKO AUTO-TAXI ZERBITZUAREN UDAL ORDENANTZA

I. TITULUA

ARAU OROKORRAK

*1. artikulua. Ordenantzaren xedea.*

1) Ordenantzaren xedea da Errenteriako udalerriaren barruan taximetro kontagailua duen alokairuko turismo gidaridun ibilgailuetan -aurrerantzean auto-taxia- eskaintzen diren bidaiarien hiri garraio zerbitzuak arautzea.

2) Auto-taxi jarduerak interes orokorreko zerbitzu kontsiderazioa du, partikularrek jendeari zuzendutako zerbitzua baita, eta, horrela izanik, aplikagarri zaizkion legeetan eta honako Ordenantza honetan jasotako antolamenduaren mende dago.

3) Ordenantza ondorengoei aplikatuko zaie: Auto-taxi guztiei, turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri garraiorako udal lizentziaren jabe diren pertsonei (taxilariak), taxien gidariei –Errenteriako Udalak emaniko lizentziaren bat izan behar dute–, eta taxien erabiltzaileei.

Nolanahi ere, Ordenantza honetan adierazitako ibilbideak Errenteriako udalerriaren barruan eginikoak direla ulertuko da.

*2. artikulua. Definizioak.*

Ordenantzak kontzeptu hauek hartzen ditu bere baitan:

1) Auto-taxi zerbitzuak: Gehienez bederatzi lagunentzako lekua duen bidaiarien garraiorako ibilgailuak, gidaria barne, taximetroa izan eta eta tarifa izenez ezagutzen den prezioaren bidez ordaintzen dena.

## AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

### Departamento de Tráfico y Transportes

*Anuncio*

El Pleno de la Corporación en sesión ordinaria celebrada el 18 de julio de 2013, resolvió la alegación presentada y aprobó definitivamente la Ordenanza Municipal del servicio de Auto-Taxi de Errenteria.

Por dicho motivo, y a los efectos previstos en el art, 70-2.º de la Ley 7/1985 del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la Ordenanza Municipal del servicio de Auto-Taxi de Errenteria, señalando que la misma entrará en vigor a los 15 días hábiles desde su publicación.

Lo que se publica para general su conocimiento y efectos, señalando que el presente acuerdo agota la vía administrativa y contra el mismo se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro recurso que se tenga por conveniente.

El texto de la Ordenanza aprobada es el siguiente:

ORDENANZA MUNICIPAL DEL SERVICIO DE AUTO-TAXI DE ERRENTERIA

TÍTULO I

NORMAS GENERALES

*Artículo 1. Objeto de la Ordenanza.*

1) Es objeto de la presente Ordenanza la regulación de los servicios de transporte urbano de viajeros y viajeras en automóviles de turismo de alquiler con conductor o conductora provistos de contador taxímetro –en adelante, auto-taxi–, dentro del término municipal de Errenteria.

2) La actividad de auto-taxi tiene la consideración de servicio de interés general, en cuanto actividad dirigida al público que se realiza por particulares, y como tal sujeta a la ordenación contenida en las leyes de aplicación y en la presente Ordenanza.

3) La presente Ordenanza será de aplicación a todos los auto-taxis, a las personas titulares de licencia municipal de transporte urbano de personas viajeras en automóviles de turismo (taxistas), a sus personas conductoras que han de corresponderse con alguna de las licencias concedidas por el Ayuntamiento Errenteria, así como a las personas usuarias de los mismos.

En todo caso, los trayectos indicados en la presente Ordenanza habrán de entenderse referidos a todo el término municipal de Errenteria.

*Artículo 2. Definiciones.*

A efectos de esta Ordenanza, se entiende por:

1) Servicios de auto-taxi: El transporte de viajeros y viajeras con vehículos automóviles de turismo de hasta nueve plazas de capacidad, incluida la persona que conduce, que cuenta con aparato taxímetro y que se retribuye mediante el pago de un precio, denominado tarifa.

2) Hiri barruko garraioa: Errenteriako udalerri barruan eskaintzen den zerbitzua. Gainerako garraioak hiri arteko garraioaren kontsiderazioa izango dute.

3) Turismo ibilgailuak: Ordenantza honen ondorioetarako, motozikletak ez diren gainerako ibilgailuak, pertsonak garraiatzeko pentsatu eta eraikitakoak, eta gidariaren eserlekua kontatuta gehienez bederatzi pertsona edo gutxiago eramatekoa dena.

4) Auto-taxi ibilgailuen gidaria: Auto-taxi ibilgailua gidatzen duten pertsona fisikoak, dela lizentziaren titularrak direlako dela horien soldatapekoak direlako.

*3. artikulua. Zerbitzuaren printzipio gidariak.*

Taxi zerbitzuaren jarduera gauzatzea printzipio hauei loturik dago:

a) Zerbitzuaren unibertsaltasuna, irisgarritasuna berdintasun baldintzetan eta jarraitutasuna.

b) Erabiltzaileek kalitateko zerbitzua izateko eskubidea dute, eta lizentziaren jabeek, berriz, lan baldintza eta dirusarrera duinak izateko eskubidea.

c) Esku-hartze administratiboa, zerbitzua eskaintzerakoan kalitate maila egokia izateko beharrezko interes publikoaren bermean oinarrituta.

d) Zerbitzuaren nahikotasun eta kalitatearen eta ustiapena profesionalarentzat errentagarria izatearen arteko oreka.

e) Udalaren eta lizentziaren jabeen arteko lankidetza, zerbitzua emateko baldintzak hobetzeko. Hori horrela, arreta berezia eskainiko zaio alorreko elkarteen lankidetzarekin, alde batetik, berrikuntza teknologiko egokienak pixkanaka jartzea sustatzeari, erabiltzaileekin harremanak eta taxi zerbitzuen prestazioa eta segurtasuna hobetzeko, eta, bestetik, taxi irrati batera atxikitzeari. Betiere bermatuta taxi gidariaren autonomia eta askatasuna taxi irrati batera atxikitzeko ala ez.

## I. TITULUA

## LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

### I. KAPITULUA IZAERA JURIDIKOA

*4. artikulua. Lizentziak eta garraiorako baimena.*

1) Auto-taxi hiri barruko zerbitzua emateko nahitaezko baldintza da Araudi honetan eta gai honi dagokionean indarrean dauden gainerako xedapenetan ezarritako baldintzen arabera jarduteko Udalak emandako bidezko lizentzia edukitzea. Lizentzia horrek «auto-taxi lizentzia» izena du.

2) Hiriarteko zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte soilik Gipuzkoako Foru Aldundiak emaniko garraio baimena izanik udal lizentziaren jabe direnek.

3) Errenteriako udal lizentziak eta hiriarteko zerbitzuak egiteko baimenak titularrari (edo soldatapeko gidariari) aukera ematen dio soilik Errenteriako udalerrian hasten diren ibilbideak egiteko (edo zerbitzuaren prestazio bateratuko area edo babes bereziko zonan) edo Errenteriako udalerrian amaitzen direnak (edo Errenteriako udalerriak bere baitan hartzen duen prestazio bateratuko area edo babes bereziko zona).

2) Transporte urbano: El que discurre íntegramente por el término municipal de Errenteria, teniendo el resto de los transportes la consideración de transporte interurbano.

3) Vehículos de turismo: Son, a los efectos de esta Ordenanza, los vehículos automóviles distintos de las motocicletas, concebidos y construidos para el transporte de personas, con una capacidad igual o inferior a nueve plazas incluida la de quien conduce.

4) Conductor o conductora de vehículos de auto-taxi: Aquellas personas físicas que conducen el vehículo de auto-taxi, bien por ser titulares de la licencia, bien por ser asalariados o asalariadas de los primeros.

*Artículo 3. Principios rectores del servicio.*

El ejercicio de la actividad del servicio de auto-taxi se sujeta a los siguientes principios:

a) La universalidad, accesibilidad en condiciones de igualdad y continuidad del servicio.

b) El derecho de las personas usuarias a disponer de un servicio de calidad, y el derecho de las personas titulares de una licencia a unas condiciones de trabajo y unos ingresos dignos.

c) La intervención administrativa, fundamentada en la necesaria garantía del interés general para la consecución de un nivel óptimo de calidad en la prestación del servicio.

d) El equilibrio entre la suficiencia y calidad del servicio y la rentabilidad de la explotación para la o el profesional.

e) La colaboración entre el Ayuntamiento y las personas titulares de licencia, para la mejora de las condiciones de prestación del servicio. Así, se prestará especial atención a la promoción, en colaboración con las Asociaciones del Sector, de la progresiva implantación de las innovaciones tecnológicas más indicadas con el fin de mejorar las comunicaciones con las personas usuarias, las condiciones de prestación y seguridad de los servicios de taxi, como la adhesión a un Radio Taxi, manteniéndose la autonomía y libertad del taxista para pertenecer a un Radio Taxi o no.

## TÍTULO II

## DE LAS LICENCIAS Y AUTORIZACIONES

### CAPÍTULO I DE SU NATURALEZA JURÍDICA

*Artículo 4. Licencias y autorización de transporte.*

1) Para la prestación del servicio urbano de auto-taxi es condición imprescindible estar en posesión de la correspondiente licencia municipal que habilite para su realización en las condiciones fijadas en este Reglamento y demás disposiciones vigentes en la materia, la cual se denominará «licencia de auto-taxi».

2) Únicamente podrán prestar servicios interurbanos aquellas personas titulares de licencia municipal que estén en posesión de la correspondiente autorización de transporte otorgada por la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.

3) La posesión de la licencia municipal de Errenteria así como la autorización para la realización de servicio interurbanos permitirán a su titular (o conductor/a asalariado/a) única y exclusivamente la realización de trayectos que comiencen en el término municipal de Errenteria (o su Área de Prestación Conjunta o Zona de Régimen Especial del Servicio) o bien que finalicen en el término municipal de Errenteria (o su Área de Prestación Conjunta o Zona de Régimen Especial del Servicio).

4) Lizentzia eta baimenek gaitu egiten dute bidaiariak ibilgailu zehatz batean garraiatzeko. Ibilgailuaren identifikazioa lizentzian jasoko da.

5) Lizentzia eta baimen bakoitzak titular bakar bat, gidari bakar bat izango du eta ibilgailu bakar eta zehatz baterako izango da. Era berean, pertsona berak ezin izango ditu lizentzia eta baimen baten baino gehiagoren titular izan.

*5. artikulua. Lizentzia motak.*

1) Taxi zerbitzuaren udal lizentziak «arruntak» edo «egokituak» izango dira.

Lizentzia «egokituak» dira batez ere ahalmen urritasuna duten pertsonei zerbitzua eskaintzera bideratutakoak; gainerakoak, «arruntak» dira.

2) Nolanahi ere, egokitutako lizentziek zerbitzuari ibilgailu egokitua atxiki behar diote, ahalmen urritasuna duten pertsonak garraiatu ahal izateko, indarrean dauden irisgarritasun arau teknikoen arabera.

3) Egokitutako lizentziak xede horrekin eratu eta eman ahal izango dira, egokitutakoaren berezko izaerarekin. Halaber, jabetza hori aldi baterako izan liteke, jabeak bere borondatez hala eskatuta eta udalaren baimenarekin, lizentzia arrunten bati lotuta.

4) Ez da utziko egokitutako ibilgailuen lizentziak izaera hori gal dezaten, harik eta bermatu arte aldaketa horrek ez duela murrizketarik ekarriko taxi egokituen lizentzia kopuruan.

5) Egokitutako lizentziaren aldi baterako indarraldia bost urtekoa izango da gutxienez, eta iraupen bereko epeetan luzatu ahal izango da, titularrak lizentzia berriro «arrunta» izatea eskatu bitartean, indarraldia amaitu baino lehen. Dena dela, aldi baterako edozein baimen eten ahal izango da, «arruntaren» izaera berreskuratuta, baldin eta aldi berean baimentzen bada lizentziaren eskualdatzea edo lizentziari atxikitako ibilgailua aldatzea.

6) Ibilgailu egokituari dagokion lizentziaren titularrak eskatu ahal izango du titularitate aldaketa egitea ibilgailu arruntaren lizentziaren jabe batekin, udal baimena eskuratu ondoren. Kasu horretan, bi lizentzien titularrek lizentziak trukatuko lituzkete.

7) Auto-taxirako lizentzia berriak eratzeko eskumena Udalbatzak edo uneoro indarrean dagoen araudiari jarraiki eskumena duen organoak izango du, legez bidezkoak izan litezkeen delegazioen kalterik gabe. Lizentzia horiek emateko kontuan hartuko dira, besteak beste, honakoak: Zerbitzua eman beharreko biztanleria irizpideak, zonaldearen egoera sozio-ekonomikoa eta abar, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oarsoaldeako Taxien Batzordeak eta Gipuzkoako Taxien Batzordeak emandako datuen arabera.

## II. KAPITULUA LIZENTZIAK EMATEA ETA HORIEK ERREGISTRATZEA

*6. artikulua. Lizentzia kopurua. Horiek emateko prozedura.*

1. Eman daitekeen auto-taxi zerbitzuko lizentzia kopurua Udalbatzak edo eskumena duen udal organoak zehatz dezake, aplikagarria den araudiaren arabera, eskaini beharreko zerbitzua hobetzea kontuan hartuta.

Dena dela, eman daitekeen gehienezko kopurua mugatuta geratzen da Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak herriarteko garraio baimenentzat ezarritako gehieneko kuota kopurura.

4) Las licencias y autorizaciones habilitarán para la realización del transporte de viajeros y viajeras con un vehículo concreto, cuya identificación deberá figurar en la misma.

5) Cada licencia y autorización tendrá una única persona titular, una única persona conductora y amparará a un solo y determinado vehículo, no pudiendo una misma persona ser titular de más de una licencia y autorización.

*Artículo 5. Tipos de licencia.*

1) Las licencias municipales de auto-taxi tendrán la consideración de «convencionales» o «adaptadas».

Son licencias «adaptadas» aquellas que están preferentemente destinadas al servicio de personas con discapacidad, siendo «convencionales» el resto.

2) Las licencias adaptadas deberán tener adscrito al servicio, en todo caso, un vehículo adaptado para poder transportar a personas con discapacidad, según las normas técnicas de accesibilidad vigentes en cada momento.

3) Las licencias adaptadas podrán haber sido creadas y otorgadas con este objeto, considerando entonces su carácter de adaptadas como inherente a las mismas. Podrán, asimismo, tener esta propiedad de forma temporal, por solicitud voluntaria de su titular y su correspondiente autorización del Ayuntamiento, respecto a alguna de carácter inherente convencional.

4) No se permitirá que las licencias adaptadas con carácter inherente dejen de serlo mientras no se garantice que este cambio no supondrá una disminución en el número de licencias de taxi adaptado.

5) La condición temporal de adaptada de una licencia tendrá un período mínimo de vigencia de cinco años, siendo prorrogada por periodos sucesivos de la misma duración, en tanto la persona titular no solicite la reversión a su carácter convencional previamente a la finalización del periodo vigente. No obstante, cualquier periodo de autorización temporal podrá ser interrumpido, recuperando el carácter de convencional, si se autorizara conjuntamente una transmisión de la licencia o un cambio del vehículo adscrito a la licencia.

6) La persona titular de una licencia con carácter inherente de adaptada podrá, con autorización municipal, permutar la titularidad con otra persona titular de una licencia con carácter inherente de convencional, intercambiándose, en ese caso, las personas titulares de ambas licencias.

7) La competencia para la creación de nuevas licencias de auto-taxi corresponde al Pleno u órgano que resulte competente conforme a la normativa vigente en cada momento, sin perjuicio de las delegaciones que legalmente procedan. Se tendrá en cuenta para tal concesión los criterios de población a la que haya de atender el servicio, las circunstancias socio-económicas que concurran en la zona etc., a tenor de los datos que puedan aportar la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Comisión del Taxi de Oarsoaldea y la Comisión del Taxi de Gipuzkoa.

## CAPÍTULO II DE LA CONCESIÓN DE LAS LICENCIAS Y SU REGISTRO

*Artículo 6. Del número de licencias. Procedimiento de concesión.*

1. La determinación del número de licencias efectivas del servicio de auto-taxi a conceder la hará el Pleno o el órgano municipal competente en cada momento, de acuerdo con la normativa de aplicación, en razón de la mejora del servicio a prestar.

En todo caso, el número máximo de licencias a conceder queda limitado por el número máximo del contingente establecido para las autorizaciones de transporte interurbano por el Departamento de Transportes del Gobierno Vasco.

2. Auto-taxi zerbitzuaren lizentzia kopurua handitu edo murrizteko asmoz sustatzen diren espediente guztiak, Udalak ezarritako gehienezko kopuruaren barruan, ondorengo datu hauek hartuko ditu kontuan:

a). Zerbitzua zein egoeretan dagoen (batez ere, kalitatea eta hedadura) aldaketa egin aurretik.

b). Udalerriaren hirigintza garapena eta jarduera ekonomikoa zein soziala.

c) Zerbitzu hobea eta zabalagoa emateko dauden behar errealak.

d) Lizentzia berriak emateak garraio eta zirkulazioan oro har izango duen eragina.

e) Uneoro dauden behar sozialak asetzeko beharrezkoa den taxi egokituen lizentzia portzentajea eskuratzeko beharra, betiere, indarrean dagoen araudiari jarraiki mantendu beharreko gutxieneko portzentajea bermatuta.

Aipatutako espedienteetan txostena eskatuko zaio Eskualdeko Taxi Batzordeari edo horren pareko den Gipuzkoako Lurralde Historikoko organoari. Halaber, hogeita hamar eguneko entzunaldia eskainiko zaie taxiaren alorreko elkarte zein kontsumitzaile eta erabiltzaileen arlokoei.

3. Taxi zerbitzuko udal lizentziak lehiaketa publiko bidez adjudikatuko dira, lehia askearen eta publizitatearen printzipioak errespetatuta. Lehiaketaren deialdia eta lehiaketa bera arautuko duten oinarriak zein auto-taxi zerbitzurako udal lizentziak ematea Tokiko Gobernu Batzordearen eskumena izango dira, bidezko delegazioen kalterik gabe.

4. Lehiaketaren oinarrietan ezarritako aurreikuspenen eta aplikagarria den araudi sektorialaren xedapenen kalterik gabe, prozedura, prestaketa zein adjudikazioari dagokionez, sektore publikoko kontratazioaren araudiari jarraiki egingo da.

5. Lehiaketan, besteak beste, honako alderi hauek baloratu ahal izango dira:

a) Eskaintza ekonomikoa.

b) Hizkuntzak jakitea.

c) Lizitatzailearen proposamenak, eskaini beharreko zerbitzuaren hainbat ezaugarri bereziri dagokionez.

d) Energia eraginkortasun handiena, erregai berriztagarriak, zarata gutxitzea eta $CO_2$ emisioak eta bestelako gas eta partikula kutsatzailea gutxiagotzea, erabilitako materialen birziklatzea optimizatzea eta konposatu organu-kloratuak saihestea ahalbidetzen duten teknologiak erabiltzea (motorizazioa, materialen diseinua, pisua eta antzekoak).

e) Taxi irrati bati atxikitzea edo haren kide izatea.

f) Emakumeak sektorean sartzea, beti ere, bere ordezkaritza %40tik beherakoa denean.

g) Beste meritu batzuk, beste izangaien aldean izangai bakoitzak zerbitzu hobea eskaintzea eragingo luketenak.

6. Eskatzaile-lizitatzaileak: Auto-taxi lizentzia eskatu ahal izango dute, horretarako deitutako lehiaketan parte hartuta:

a) Lanbide honetan erabateko dedikazio esklusiboan zerbitzua ematen duten auto-taxi lizentzien titularren soldatapeko gidariek. Horretarako egiaztatu beharko dute Errenteriako Udalak emandako gidari baimena indarrean dutela eta Gizarte Segurantzan kontzeptu horretan izena emana izan eta kotizazioa ordaindua dutela.

2. Cualquier expediente que se promueva con el objeto de aumentar o disminuir el número de licencias del servicio de auto-taxi, dentro del número máximo a otorgar por el municipio, deberá tomar en consideración los siguientes datos:

a) La situación del servicio (sobre todo, calidad y extensión) en la situación previa a la variación.

b) El desarrollo urbanístico y la actividad económica y social del municipio.

c) Las necesidades reales de un mejor y más extenso servicio.

d) La repercusión de la creación de nuevas licencias en el conjunto del transporte y la circulación.

e) La necesidad de alcanzar el porcentaje de licencias de taxi adaptado que resulte preciso para satisfacer las necesidades sociales existentes en cada momento que, en todo caso, deberá cubrir el porcentaje mínimo establecido conforme a la normativa vigente.

En dichos expedientes se deberá solicitar informe a la Comisión del Taxi de la Comarca u órgano equivalente del Territorio Histórico de Gipuzkoa, dándose, asimismo, audiencia por plazo de treinta días, a las asociaciones del sector del taxi y a las de las personas consumidoras y usuarias.

3. Las nuevas licencias se adjudicarán mediante concurso público, con estricto respeto a los principios de libre concurrencia y publicidad. La convocatoria, las bases reguladoras del concurso así como el otorgamiento de las licencias municipales del servicio de auto-taxi corresponderá a la Junta de Gobierno Local, sin perjuicio de las delegaciones que legalmente procedan.

4. Sin perjuicio de las previsiones contenidas en las bases del concurso, y de las disposiciones de la normativa sectorial aplicable, el procedimiento se regirá, en cuanto a su preparación y adjudicación, por la normativa sobre contratación en el sector público.

5. En el concurso se podrán valorar, entre otros, los siguientes aspectos:

a) La oferta económica.

b) Conocimiento de idiomas.

c) Propuestas de la persona licitante en cuanto a especiales características de prestación del servicio.

d) La introducción de tecnologías (motorización, diseño de materiales, peso y similares) que permitan la máxima eficiencia energética, la utilización de combustibles renovables, la minimización del ruido y de las emisiones de $CO_2$ y otros gases y partículas contaminantes y la optimización del reciclado posible de los materiales empleados, así como la evitación de compuestos órgano-clorados.

e) La adhesión o pertenencia a una emisora de Radio-Taxi.

f) La incorporación de mujeres al sector, siempre y cuando su representación sea inferior al 40%.

g) Otros méritos que puedan suponer una mejor prestación del servicio por cada persona aspirante frente al resto.

6. Personas solicitantes-licitadores: Podrán solicitar licencia de auto-taxi concurriendo al concurso convocado al efecto:

a) Las personas conductoras asalariadas de los titulares de licencias de auto-taxi, que presten el servicio con plena y exclusiva dedicación en la profesión, acreditada mediante la posesión y vigencia del permiso de conductor o conductora expedido por el Ayuntamiento de Errenteria, y la inscripción y cotización en tal concepto a la Seguridad Social.

b) Ordenantza honetan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak.

Auto-taxi udal lizentzia eskuratzeko lehiaketan parte hartu dezakete adinez nagusi diren eta Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasunaren estatu batekoa duten pertsonek, edo Europako beste estaturen batekoa Espainiak sinatutako nazioarteko akordio, tratatu edo hitzarmenetan jasotakoaren arabera horiekin aipatu baldintza betetzea ez dela beharrezkoa jasota badago edo, bestela, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunen gaineko legedian jasota dagoenaren arabera bidezko lan baimenak dituztenak garraio jarduera norbere izenean egiteko moduan.

7. Auto-taxirako lizentzien adjudikazioan, Errenteriako Udalak ondorengo lehentasunak izango ditu:

*Lehenengoa:* Udalerri honetan zerbitzua ematen gutxienez urtebeteko antzinatasuna duten aurreko puntuko a) ataleko eskatzaileen alde, antzinatasuna zehatz-mehatz eta jarraian egiaztatuta. Egiaztatze jarraitu hori eten egingo da boluntarioki soldatapeko gidariaren lanbidea hiru hilabeteko epean edo epe luzeagoan uzten denean.

*Bigarrena:* Aurreko puntuko b) ataleko pertsonen alde, lehiaketa libre bidez, aurreko atalari jarraiki adjudikatzen ez diren lizentzietan.

8. Artikulu honetako 3. paragrafoan adierazitako lehiaketan parte hartzeko eta lizentziak eskualdatze kasuetarako, interesatuek baldintza hauek bete behar dituzte:

a). Zerga betebeharrak egunean izatea.

b). Gidabaimena nahikoa izatea, trafiko eta bide segurtasun arloan eskumena duen organoak emana.

c). Eragozpen fisiko edo psikorik ez izatea, lanbidea ohiko moduan eskaintzea eragotzi edo zailtzen duenik.

Indarrean dagoen araudian ezarritako baldintza, dokumentazioa eta betebeharrak eskatuko dira.

Nolanahi ere, lehiaketa arautzen duten oinarriek eskatzen dituzten baldintza guztiak bete beharko dira nahitaez auto-taxirako lizentzia eskatu ahal izateko.

*7. artikulua. Eraginkortasuna.*

1. Lizentziaren eraginkortasuna onuradunak lehiaketaren oinarrietan horretarako ezarritako epearen barruan Udalean ondorengo dokumentazioa aurkeztearen mende egongo da:

a) Jardueraren hasieraren gaineko errolda aitorpenaren kopia pertsona fisikoen eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

b) Udalak lizentzia emateagatik ezarritako diru kontraprestazioa ordainduta izanaren egiaztagiria, baita agiri hori emateko ordaindu beharreko tasa ordaindua izatea ere.

c) Gizarte Segurantzaren langile autonomoen erregimen berezian alta emana izanaren aitorpena.

d) Lizentziari loturiko ibilgailuaren zirkulazio baimena, zerbitzua emateko erabiliko dena. Lizentzia eskatzen den unean ibilgailuak ez du bi urtetik gorako antzinatasunik izango, lehenengo aldiz matrikulatu zenetik kontatuta, matrikulazioa edozein herrialdetan egin dela ere.

e) Ibilgailuaren azterketa teknikoaren txartela.

b) Las personas físicas que cumplan los requisitos señalados en la presente ordenanza.

Podrán concurrir a la obtención de licencia municipal de auto-taxi las personas físicas mayores de edad, de nacionalidad española o de un Estado de la Unión Europea, o de otro país europeo con el que, en virtud de lo dispuesto en acuerdos, tratados o convenios internacionales suscritos por España, no sea exigible el citado requisito o, en otro caso, contar con las autorizaciones o permisos de trabajo que, con arreglo a lo dispuesto en la legislación sobre derechos y libertades de las personas extranjeras en España, resulten suficientes para amparar la realización de la actividad de transporte en nombre propio.

7. En la adjudicación de las licencias de auto-taxi, el Ayuntamiento de Errenteria se someterá a la siguiente prelación:

*Primero:* A favor de las personas solicitantes del apartado a) del punto anterior, que tengan una antigüedad mínima de un año en la prestación del servicio, con rigurosa y continuada antigüedad acreditada, dentro de este término municipal. Dicha continuidad quedará interrumpida cuando voluntariamente se abandone la profesión de conductora o conductor asalariado por un plazo igual o superior a tres meses.

*Segundo:* A favor de las personas del apartado b) del punto anterior, mediante concurso libre, aquellas licencias que no se adjudicasen con arreglo al apartado anterior.

8. Para acceder al concurso indicado en el apartado 3.º del presente artículo así como para los supuestos de transmisibilidad de las licencias, las personas interesadas deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar al corriente de sus obligaciones fiscales.

b) Poseer permiso de conducción suficiente expedido por el órgano competente en materia de tráfico y seguridad vial.

c) No padecer impedimento físico o psíquico que imposibilite o dificulte el normal ejercicio de la profesión.

Se exigirán todas las condiciones, documentación y requisitos establecidos en la normativa vigente.

En todo caso, habrán de cumplirse los requisitos que las bases que rijan el concurso establezcan con carácter imprescindible para poder solicitar la licencia de auto-taxi.

*Artículo 7. Eficacia.*

1. La eficacia de la concesión de la licencia estará condicionada a que en el plazo establecido al efecto en las bases del concurso la persona beneficiaria presente al Ayuntamiento la siguiente documentación:

a) Copia de la declaración censal de comienzo de actividad a efectos del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre el valor añadido.

b) Recibo acreditativo del pago de la contraprestación pecuniaria fijada por el Ayuntamiento por la concesión de la licencia, así como de la tasa por la expedición del documento.

c) Declaración de alta en el régimen especial de trabajadoras y trabajadores autónomos de la Seguridad Social.

d) Permiso de circulación del vehículo adscrito a la licencia y con el que se va a prestar el servicio. En el momento en que se solicite la licencia el vehículo no podrá tener una antigüedad superior a dos años, contados desde su primera matriculación, cualquiera que sea el país en que ésta se haya producido.

e) Tarjeta de inspección técnica del vehículo.

f) Gidabaimena, BTP motakoa edo goragokoa. Auto-taxirako gidarientzako udal baimena.

g) Erantzukizun zibilaren gaineko aseguruaren poliza nahitaez egin behar duten motordun ibilgailuak erabiltzearen ondoriozko poliza, eta erantzukizun zibilaren gaineko poliza egiten den garraioa dela eta erabiltzaileei eragin dakiekeen kalte guztiak estaltzeko.

2. Dokumentazioa jasotzen denetik hamabost guneko epean Udalak zuzena dela egiaztatu eta gabeziaren bat izanez gero, interesatuari jakinaraziko dio, hamar lanegunetako epean zuzen dezan. Aipatu epean gabezia hori ez zuzentzeak ekarriko du lizentziarik ez ematea.

3. Interesatuak beharrezko dokumentazioa ekarri edo antzemandako gabeziak zuzendu ezean, Udalak eskubidea galdu duela adieraziko du eta eskatzaileari jakinaraziko dio lehiaketan lizentzia hori bete gabe gelditu dela eta bera dela lehenengo erreserba, modu horretan artikulu honen lehenengo paragrafoan zerrendatutako dokumentazioa aurkezteko aukera izan dezan.

Prozedura hori erreserban geldititutako lizentzia eskatzaileekin jarraituko da hurrenkeraren arabera, harik eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, lizentzia ematen den arte.

*8. artikulua. Lizentziak erregistratzea.*

1. Eman dituen lizentzien erregistroa eramango du Udalak, eta hor lizentziei eragiten dieten gorabeherak idatziko dira: Titularitatea, lizentziari loturiko ibilgailua, egindako arauhausteak eta jarritako zigorrak, eta lizentziaren gaineko bestelakoak.

2. Dena dela, erregistroan datu eta agiri hauek agertuko dira:

a). Lizentziaren titularra eta zenbakia (kasua balitz soldatapeko gidaria), NANaren fotokopia eta telefono zenbakia.

b). Lizentziari atxikitako ibilgailua, matrikula, marka eta zirkulazio baimenaren fotokopia.

c). Gipuzkoako Foru Aldundiak emaniko hiriarteko garraiorako baimena.

d). Taxi irrati baten kide izatea.

3. Erregistroan jasota dauden datuak publikoak izango badira ere, partikularrek horiek kontsultatzeko eskatu ahal izango da horiek ezagutzeko interes legitimoa dagoela egiaztatzea, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 37. artikuluan jasotakoaren arabera.

4. Erregistroetan jasotako datuen trataera eta lagapena egitea artxibo administratiboen araudiari eta Datu Pertsonalen Babeserako 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari egokitu behar da.

5. Koordinazio ondorioetarako, aipatu erregistroan jasotako informazio guztia Eusko Jaurlaritzaren bidezko departamentuaren mende dagoen datu base zentral batera igorriko da.

## III. KAPITULUA LIZENTZIAK ESKUALDATZEA

*9. artikulua. Kasuak.*

1. Lizentziak soilik ondorengo kasuetan eskualdatu ahal izango dira:

f) Permiso de conducción de clase BTP o superior. Permiso municipal de conductor o conductora de auto-taxi.

g) Póliza de seguro de responsabilidad civil derivada del uso y circulación de vehículos a motor de suscripción obligatoria, y póliza de seguro de responsabilidad civil que cubra cuantos daños y perjuicios puedan causar a los usuarios o usuarias con ocasión del servicio de transporte que realicen.

2. En el plazo de quince días desde la recepción de la documentación el Ayuntamiento comprobará su corrección y, si existiera alguna deficiencia, lo notificará a la persona interesada, requiriéndole para que la subsane en el plazo de diez días hábiles. La no subsanación en dicho plazo de la deficiencia observada supondrá la ineficacia de la concesión de la licencia.

3. Si la persona interesada no aportara la documentación necesaria o no subsanara las deficiencias detectadas, el Ayuntamiento la declarará decaída en su derecho y procederá a comunicar a la persona solicitante que hubiera quedado como primera reserva en el concurso la vacancia de la licencia para que pueda presentar la documentación relacionada en el párrafo primero de este artículo.

Este procedimiento se repetirá sucesivamente con las y los solicitantes de licencia que hubieran quedado como reservas hasta que, comprobada la adecuación de la documentación aportada, se proceda a conceder la licencia.

*Artículo 8. Registro de las licencias.*

1. El Ayuntamiento llevará un registro de las licencias concedidas, en el que se irán anotando las diferentes incidencias relativas a su titularidad, vehículo afecto a la misma, infracciones cometidas y sanciones impuestas, así como cualquier otra relativa a la licencia.

2. En todo caso, constarán en el registro los siguientes datos y documentos:

a) Titular y número de la licencia y, en su caso conductor o conductora asalariado/a, fotocopia del D.N.I. y número de teléfono.

b) Vehículo adscrito a la licencia, matrícula, marca y fotocopia del permiso de circulación.

c) Autorización de transporte interburbano expedida por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

d) Pertenencia a un Radio-Taxi.

3. El conocimiento de los datos que figuren en el registro será público, si bien para la consulta de los mismos por los particulares podrá exigirse la acreditación de un interés legítimo en dicho conocimiento de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4. El tratamiento y cesión de los datos contenidos en los registros ha de ajustarse a la normativa relativa a los archivos administrativos y a la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de protección de Datos de Carácter Personal.

5. A efectos de coordinación, toda la información recogida en dicho registro se remitirá a una base de datos central que dependerá del Departamento correspondiente del Gobierno Vasco.

## CAPITULO III DE LA TRANSMISION DE LAS LICENCIAS

*Artículo 9. Supuestos.*

1. Las licencias únicamente podrán transmitirse en los siguientes supuestos:

a) Titularra hiltzean, ezkontide alargunaren edo legezko oinordekoen alde. Hamabi hileko epean hildako titularraren herentzian interesa dutenek horren adjudikazioa eskuratu beharko dute, Udalaren aurrean adjudikazio hori eskuratu duela dokumentazio bidez egiaztatuta.

b) Titularrak erretiroa hartzeagatik.

c) a) atalean aipatzen diren ezkontide alarguna edo oinordekoek ezin dutenean lizentzia jarduera bakar eta esklusibo gisa ustiatu, nolanahi ere gidari udal baimenaren jabe den bestelako nahitaezko gainerako oinordekoek lehentasunez hartzeko eskubidea izanda.

d) Lanerako ezintasun edo baliaezintasunagatik.

e) Lizentziaren titulartasunak hamar urte baino gehiago dituenean. Eskualdatu ahal izango da, eta ezin izango da beste lizentzia bat eskuratu udalerri berean hamar urteko epean, Ordenantza honetan ezarritako inolako eratan.

2. Eskualdatzea Errenteriako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak baimendu behar du, edo delegazioa duen organoak. Horretarako, lizentzia eskuratu nahi duenak eskaera egingo du; eta baimenaren jabe izateko Ordenantza honetan ezarritako beharkizun eta baldintza guztiak bete behar ditu. Titular berriak 7. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez hamabost eguneko epean, lizentzia eskualdatzea baimentzen duen udal akordioa jakinarazten denetik.

Halaber, titular berriak idatziz adierazi behar du Taxiaren Legearen eta horren Erregelamenduaren edukia zein Ordenantza hau ezagutzen dituela.

Eskualdatzeko baimena lortzeko nahiz titular berria izateko eginiko eskaera izapide bakar batean egin daiteke prozesua laburtzeko.

Bestalde, titular berriak eskualdatzailearen prestazioak mantenduko ditu.

3. Lizentziak eta baimenak ezin izango dira eskualdatu, Udala eta Foru Aldundia, hurrenez hurren, haiek iraungitzeko edo aldi baterako eteteko prozedura tramitatzen ari badira.

4. Eskualdatutako lizentziari dagokion ibilgailua aurretik adjudikazioa zeukan bera izan daiteke, lizentziaren hartzaileak, aldi berean ibilgailu hura erosten duenean, edo, titular berriak jartzen duen beste bat izan daiteke, betiere ibilgailuak ordezkatzeko baldintzak betetzen badira. Egokitutako ibilgailuari dagokion lizentzia denean, haren eskualdatzeak ez du ekarriko, inolaz ere, egokitutako taxi kopurua murriztea.

5. Dena dela, ezinbestekoa izango da Udalak lizentzia eskualdatzea baimentzeko, alorreko legerian tipifikatutako urraketaren batengatik bide administratiboan finkoa den ebazpenaren bidez ezarritako diruzko zigorrak ordaintzea, urraketak lizentzia horren jabeek eginikoak direnean.

6. Lizentziak ezingo dira eskualdatu Udalak modu ofizialean jakiten duenean haiek organo judizial edo administratiboak bahitu egin dituela.

a) Por fallecimiento de la persona titular, a favor de su cónyuge viudo o viuda, o herederos o herederas legítimos. En el plazo de doce meses los interesados o interesadas en la herencia del titular fallecido, deberán proceder a la adjudicación de la misma, acreditando documentalmente esta adjudicación ante el Excmo. Ayuntamiento.

b) Por jubilación de la persona titular.

c) Cuando el cónyuge viudo o viuda, o los herederos o herederas a los que se refiere el apartado a) no puedan explotar la licencia como actividad única y exclusiva, teniendo en todo caso derecho de tanteo cualquier otra persona heredera forzosa en posesión del permiso municipal de conductor.

d) Por incapacidad o invalidez laboral permanente.

e) Cuando la titularidad de la licencia tenga antigüedad superior a diez años. Se podrá llevar a cabo la transmisión, no pudiendo obtener nueva licencia, dentro del mismo municipio, en el plazo de diez años por ninguna de las formas establecidas en esta Ordenanza.

2. La transmisión deberá ser autorizada por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento, u órgano en quien delegue, previa petición cursada a tal efecto, y siempre que el o la nueva adquirente cumpla la totalidad de requisitos y condiciones establecidos en la presente Ordenanza para ser titular de la misma. El o la nueva titular deberá aportar la documentación señalada en el artículo 7, en un plazo máximo de quince días, desde la notificación del acuerdo municipal por el que se autorice la transmisión de la licencia.

Asimismo, la nueva persona titular deberá manifestar por escrito que conoce el contenido de la Ley y del Reglamento del Taxi así como de la presente Ordenanza.

Tanto la solicitud para obtener la autorización de transmisión como la dirigida al otorgamiento de nueva titularidad, serán instadas en un único trámite por economía procesal.

Por otra parte, la nueva persona titular deberá mantener las prestaciones del transmitente.

3. No podrán ser objeto de transmisión las licencias y autorizaciones cuando el Ayuntamiento y la Diputación Foral, respectivamente, estén tramitando procedimiento de extinción o suspensión temporal de las mismas.

4. El vehículo a que se refiera la licencia transmitida podrá ser el mismo al que anteriormente estuviera referida, cuando la persona adquirente de ésta hubiera, a su vez, adquirido la disposición sobre tal vehículo o bien ser otro distinto aportado por el o la nueva titular, siempre que se cumplan los requisitos para la sustitución de vehículos. Cuando se trate de licencia adaptada con carácter inherente, su transmisión, en ningún momento, podrá suponer la disminución de la flota de taxis adaptados.

5. En todo caso, el pago de las sanciones pecuniarias impuestas por resolución firme en vía administrativa por alguna de las infracciones tipificadas en la legislación del sector, será requisito necesario para que el Ayuntamiento autorice la transmisión de las licencias en relación con las cuales hayan cometido sus titulares dichas infracciones.

6. No se podrá transmitir las licencias cuando el Ayuntamiento tenga conocimiento oficial de que se ha procedido al embargo de aquéllas por órgano judicial o administrativo.

IV. KAPITULUA LIZENTZIAK IRAUNGITZEA

*10. artikulua. Lizentziak iraungitzea eta bertan behera uztea.*

1. Lizentzia iraungi egingo da ondorengo arrazoiak direla-eta:

a) Jabeak uko egin diolako.

b) Baliogabetu delako edo iraungi delako.

c) Titularra hil delako, 9. artikuluan aurreikusitako eskualdatzeko kasuetan izan ezik.

2. Araudi horretan ezarritakoz gain, titularren lizentziak iraungi eta kendu egingo dira, ondorengo kasuetan:

a) Lizentziaren oinarrizko baldintzak betetzen ez direnean.

b) Behin eta berriz arau-hauste oso larriak egiten direnean edo jarritako zigorra ordaintzen ez denean. Ondorio horietarako, ulertzen da arau-haustea behin eta berriz egin dela, egin baino lehenagoko hamabi hilabeteetan, urraketa egin duena, ebazpen finkoaren bidez, zigortua izan denean oso larritzat jotzen den urraketa batengatik.

c) Egokitasun arrazoiak tarteko. Kasu horretan, lizentziaren jabeak Errenteriako Udalak ezarritako kalte-ordaina jasoko du, merkatu azterketetan oinarritutakoa eta alorreko elkarte esanguratsuen parte hartzearekin ezarritakoa.

d) Arrazoitu gabeko kausengatik urtebeteko epean hogeita 30 egun jarraian edo 60 egun alterno baino gehiagotan zerbitzua emateari utziko balitzaio, bidezko espedientea tramitatu ondoren, lizentzia iraungi egingo da.

3. Lizentzia iraungi eta bertan behera uztea Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak adostuko du, bidezko espedientea tramitatu ondoren. Espediente hori ofizioz hasi edo sektorean diharduten profesionalen edo kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek hasi ahal izango dute.

4. Udalak iraungitako lizentziak berriro adjudikatzea erabaki ahal izango du, Ordenantza honen II Tituluaren II kapituluan ezarritakoaren arabera.

III. TITULUA

IBILGAILUAK

I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK

*11. artikulua. Lizentziari atxikitako ibilgailua*

1. Auto-taxi zerbitzua eskaintzeko eskumena ematen duen udal lizentziari lotutako ibilgailua lizentziaren titularraren jabetzakoa dela erregistratuko da Trafikoko Zuzendaritza Orokorraren ibilgailuen erregistroan, edo finantza alokairuaren kontratuaren mende dagoela.

Ibilgailu horiek Ordenantza honetan aipatzen dituen zerbitzuak eskaintzeko erabiliko dira eta han adierazitako zehaztapenekin. Horretaz gain, indarrean dagoen araudia beteko dute.

Ibilgailu horiek azterketa teknikoaren bidezko txartelean auto-taxi zerbitzua emateko multzo egokian egongo dira sailkatuta.

Ibilgailuen titularrek nahitaez kontratatu beharko dute indarrean dagoen legediak zehaztutako arriskuak estaltzen dituen bidezko aseguru poliza.

CAPÍTULO IV DE LA EXTINCIÓN DE LAS LICENCIAS.

*Artículo 10. Extinción y revocación de las licencias.*

1. La licencia se extingue por las siguientes causas:

a) Renuncia de su titular.

b) Revocación o caducidad.

c) Fallecimiento de su titular, salvo los supuestos de transmisibilidad previstos en el artículo 9.

2. Serán causas por las cuales el Ayuntamiento declarará revocadas y retirará las licencias a sus titulares, las siguientes:

a) Se incumplieren las condiciones esenciales de la licencia.

b) Por la comisión reiterada de infracciones muy graves o con quebranto de la sanción impuesta. A estos efectos, se entiende que existe reiteración cuando en los doce meses anteriores a su comisión, la persona responsable de la misma haya sido objeto de sanción mediante resolución firme por infracción tipificada como muy grave.

c) Concurrencia de razones de oportunidad. En este caso, la persona titular de la licencia será indemnizada en el precio establecido por el Ayuntamiento de Errenteria, con fundamento en estudios de mercado y con la participación de las asociaciones más representativas del sector.

d) Cuando se dejara de prestar el servicio sin causa justificada durante 30 días consecutivos o 60 días alternos durante el periodo de un año, se producirá, previa la tramitación del correspondiente expediente, la caducidad de la licencia

3. La extinción y retirada de la licencia se acordará por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento, previa la tramitación del expediente procedente, el cual podrá incoarse de oficio o a instancia de las asociaciones profesionales del sector y asociaciones de personas consumidoras y usuarias.

4. El Ayuntamiento podrá acordar la nueva adjudicación de las licencias extinguidas, en los términos establecidos en el capítulo II del Título II de esta Ordenanza.

TÍTULO III

DE LOS VEHÍCULOS

CAPÍTULO I NORMAS GENERALES

*Artículo 11. Vehículo adscrito a la licencia.*

1. El vehículo adscrito a la licencia municipal que faculta para la prestación del servicio de auto-taxi deberá figurar como propiedad de la persona titular de la misma en el Registro de Vehículos de la Dirección General de Tráfico, o ser objeto de contrato de arrendamiento financiero.

Estos vehículos deberán destinarse a la prestación de los servicios a que se refiere esta Ordenanza, bajo las especificaciones de la misma, y cumpliendo la legislación vigente en la materia.

Estos vehículos deberán estar clasificados en su correspondiente tarjeta de inspección técnica en el grupo adecuado para la prestación del servicio de auto-taxi.

Los titulares de los vehículos deberán concertar obligatoriamente la correspondiente póliza de seguros, que cubrirá los riesgos determinados por la legislación en vigor.

2. Udal lizentziak zehaztuko du zerbitzuak zenbat lagun eraman ditzakeen edo zenbat «zerbitzuleku» dituen (bidaia dezaketen pertsona kopurua, gidaria barne).

Oro har, berariazko beste zehaztasun bat izan ezean, taxi lizentziaren bidezko zerbitzuak bost eserleku izango ditu, gidariarena barne, eta, hori ibilgailuaren fitxa teknikoaren bidez egiaztatuko da. Dena dela, salbuespen gisa, ibilgailu egokituek bederatzi eserleku izatea baimenduko da, Errenteriako Udalaren berariazko ebazpenaren bidez, Eskualdeko Taxi Batzordeak txostena egin ondoren.

3. Udal lizentzia berria eskatzen denean, hura atxikitzen den ibilgailua ezin izango da bi urte baino zaharragoa izan lehen matrikulaziotik kontatzen hasita, edozein herrialdeetan inskribaturik dagoela ere. Denbora muga hori ez da aplikatuko lizentzia atxikitako ibilgailuarekin batera eskualdatzen denean.

4. Atxikitako ibilgailuei udal azterketa egingo zaie atxikipena egin aurretik, zerbitzuari eta zerbitzu hori arautzen duen araudiari egokitzen diren frogatzeko.

Egokitzapen azterketa atxikipena egin aurretik egin daiteke edo udal lizentzia indarrean dagoen edozein unetan. Hala, hori egitea jabeari eskatuko zaio eta epe bat emango zaio ikuskapena udal bulegoetan edo horretarako adierazten den lekuan egin dezan.

## II. KAPITULUA ATXIKITAKO IBILGAILUA ALDATZEA ETA ESKUALDATZEA

*12. artikulua. Aldatzea. Ordezko ibilgailua*

1) Lizentziaren jabeak hari atxikitako ibilgailua alda dezake. Horretarako, interesatuak nahitaezko udal baimena idatziz eskatuko du. Baimena emango da baldintza teknikoen egokitasuna eta zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa den dokumentazioa zuzen dagoela egiaztatu ondoren.

2) Ibilgailuak istripua edo matxura edo bestelako ustekabeko gorabeherak izanez gero, atxikitako ibilgailuaren zerbitzua eskaintzea eragozten dutenak, jabeak zerbitzua eskaintzen jarrai dezake, egoera iragankorrak irauten duen bitartean, lizentziari atxikitako ibilgailuaren antzeko ezaugarriak dituen eta indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen gainerako baldintzak betetzen dituen ibilgailu batekin.

Horretarako, Udalean aurkeztu behar du berariazko baimen eskaera, ordezko ibilgailua erabili behar izateko izandako salbuespenezko gorabeheren egiaztagiriarekin eta ibilgailu horren zirkulazio baimenaren kopiarekin batera.

Lizentziari hasieran atxikitako ibilgailua ordezkatzen duenak aldi baterako atxikitakoaren izaera izango du. Egoera iragankor hori hiru hilabete baino gehiago luzatzen bada, eskaera berria egin eta Udalaren berariazko ebazpena beharko da. Aldi baterako baimen horien gaineko ebazpenak emateko eskumena Alkateak edo bera ordezkatzen duen organoak izango du.

Behin-behingoz ordezkatzera eraman zuten gorabeherak gaindituta, lizentziaren titularrak Udalari jakinarazi behar dio, hamar egun naturaleko epean, berriz zerbitzua eskaintzen hasi dela lizentziari hasieran atxikitako ibilgailuarekin, eta ordezko ibilgailua baja emanda geratuko da lizentziaren atxikipenetik.

*13. artikulua. Ibilgailua eskualdatzea.*

Udal lizentziari atxikitako ibilgailua «inter vivos» eskualdatzen bada, hura baliogabetu egingo da, baldin eta, lizentziaren

2. La licencia municipal determinará una capacidad máxima de prestación del servicio o «capacidad de servicio» (número de personas viajeras, incluida la persona conductora).

Kasu horietan, gidariak nahiz erabiltzaileak Udaltzaingoa agertzea eska dezakete, uko egin izanaren arrazoiak egiaztatzeko.

3. Erabiltzailea ezindua izanik taxi arrunta eskatzen duenean, gidariak ezin izango dio uko egin zerbitzua eskaintzeari, ezintasun hori alegatuta.

Zerbitzuan dagoen taxiaren gidariek garraiatzen duten ezinduei laguntza eskaini behar die ibilgailura igotzerakoan eta jaisterakoan, eta baita haur-kotxea behar duten haurrekin doazen bidaiariei ere. Halaber, fardelak kargatzen lagunduko diete eta baita erabiltzaileek mugitzeko behar dituzten gurpil aulki eta haur-kotxeak kargatzen ere. Gainera, lagundu egingo dute ibilgailuan kokatzen eta lotura elementuak jartzen (euskarriak edota segurtasun uhala).

Behar bereziak dituzten erabiltzaileen kasuan (haurrentzako euskarriak eta abar), gidaria horiek eskaintzen saiatuko da denboraz jakinarazten bazaio behintzat. Ezinezkoa denean, erabiltzaileari jakinarazi eta zerbitzua eskaintzeari uko egin diezaioke.

Erabiltzaileak ikusteko ezgaitasun larria duenean, auto-taxien gidariak laguntza eskainiko dio ibilgailura igotzeko eta handik jaisteko, eta zerbitzua zein leku zehatzetan amaitu den adieraziko dio eta bere helmugara oinez iristeko zein norabide hartu behar duen eta zein ibilbide egin behar duen jakinarazi.

4. Zerbitzua emateari uko egiten dionean, gidariak erabiltzaileari idatziz adieraziko dizkio horren arrazoiak, erabiltzaileak hala egiteko eskatzen badio.

*33. artikulua. Zerbitzuaren ibilbidea.*

Auto-taxi zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzua emateko egokitzat jotzen duen ibilbidea hauta dezake, trafikoa erregulatzeko arauen kontrakoa ez bada behintzat. Hautaketarik egiten ez badu, gidariak biderik motzena hartuko du, kontuan hartuta egin beharreko distantzia eta ibilbidean bidaia atzera dezaketen gorabeherak.

*34. artikulua. Zerbitzua etetea.*

1. Istripua edo matxura gertatu, edo gidariak kontratatutako zerbitzua ematen ezinezkoa egiten duten arrazoiak direlaeta agintaritzaren agenteek ohartarazteko edo salatzeko geratuz gero, eta fakturazioa taximetroaren bidez zehazten denean, zerbitzua amaitzean taximetroak markatzen duen preziotik deskontatu egingo da zerbitzua etenda egon den denborari dagokion zenbatekoa.

Zerbitzua ezin bada behar bezala eskaini, materialki ezinezkoa delako edo erabiltzaileak hala erabaki duelako, erabiltzaileak taximetroak markatzen duena ordainduko du.

2. Erabiltzaileak hala eskatuta, gidariak beste auto-taxi bat jarriko du haren zerbitzura. Kasu horretan, tarifa berria kontatzen hasiko da erabiltzailea ibilgailua hartzen duenetik.

En estos supuestos, tanto quien conduce el vehículo como la persona usuaria podrán reclamar la presencia de la Policía Local a efectos de comprobación de la justificación de la negativa.

3. En el supuesto de persona usuaria con discapacidad que, no obstante, demandare un taxi convencional, la persona conductora no podrá negarse a la prestación del servicio alegando dicha incapacidad.

Las personas conductoras de un taxi en servicio han de ayudar a subir y bajar del vehículo a las personas con movilidad reducida a las que transporten, así como a las que vayan acompañadas de niños y niñas que necesiten cochecitos para desplazarse. Deberán, asimismo, cargar el equipaje o los aparatos que las personas usuarias puedan necesitar para desplazarse, como sillas de ruedas o coches de niños y niñas, ayudar a acomodarse y ajustarse los elementos de sujeción (anclajes y/o cinturón de seguridad).

En el supuesto de personas usuarias con necesidades específicas (dispositivos de anclaje para niños y niñas etc.) la persona conductora procurará aportar el mismo si es avisado con la suficiente antelación. En el supuesto de no ser posible, deberá notificárselo al usuario pudiéndose negar a la prestación del servicio.

En caso de que la persona usuaria sea una persona con discapacidad visual grave, las personas conductoras de auto-taxi deberán ofrecer al mismo su ayuda para subir y bajar del vehículo, así como informarle sobre el lugar exacto donde hubiera parado en destino, y una orientación sobre la dirección que debería tomar caminando para ir a su destino final, así como informarle del itinerario a realizar hasta su destino.

4. En caso de negativa a la prestación del servicio la persona transportista vendrá obligada a prestar a la persona usuaria por escrito la causa de este hecho, si esta última así se lo demanda.

*Artículo 33. Itinerario del servicio.*

La persona usuaria del servicio de auto-taxi podrá escoger el recorrido que considere más adecuado para la prestación del servicio, salvo que resulte contrario a las normas o a la regulación del tráfico En el supuesto de no optarse por ningún recorrido, la persona conductora seguirá el itinerario previsiblemente más corto, teniendo en cuenta tanto la distancia a recorrer, como las posibles y previsibles incidencias en el recorrido que pudieran demorarlo.

*Artículo 34. Interrupción del servicio.*

1. En caso de accidente o avería así como cuando la persona conductora fuere retenida por agentes de la autoridad para ser amonestada o denunciada u otra causa que haga imposible continuar prestando el servicio contratado, y la facturación se determine por el aparato taxímetro, se descontará del precio que marque el taxímetro, al finalizar el servicio, la suma correspondiente al tiempo en que hubiere estado suspendida la prestación de aquél.

Si el servicio no se pudiere consumar bien por imposibilidad material o por deseo de la persona usuaria, ésta abonará el importe de lo que marque el taxímetro.

2. En el supuesto de que la persona usuaria así lo solicitare, la persona conductora pondrá a su disposición un nuevo auto-taxi. En este caso, la nueva tarifa comenzará a contar desde el momento en el que la persona usuaria acceda al nuevo vehículo.

*35. artikulua. Ordainketa eta itxaron denbora.*

1. Zerbitzua amaitu ondoren ordainduko da, dela esku dirutan dela kreditu txartelarekin, bezeroarekin ibilbideari dagokion kopurua aldez aurretik kobratzea adosten den kasuetan izan ezik, eta berme moduan bidezko erreziboa eginda.

2. Bezeroak ordainketa banku txartelaren bidez egingo duela adierazten duenean, zerbitzua hasi aurretik adierazi beharko du nahi hori. Egokitu zaion ibilgailuak ez badu txartelez ordaintzeko sistemarik, zerbitzua emango du ezarritako hurrenkeraren arabera ordaintzeko sistema hori duen lehenengo ibilgailuak.

3. Erabiltzaileak ibilgailua denbora batez uzten badu eta gidaria zain geratzen bada, egindako ibilbideari dagokion zenbatekoa gehi ordu erdiko itxaron denborari dagokiona (hirian) eta ordu bateko itxaron denborari dagokiona (hiritik kanpo) kobratuko da, berme titulu gisa, ordainagiria aurkeztuta. Denbora hori igarota, zerbitzuarekiko lotura bertan behera gera daiteke.

4. Bidaiariak gidariari eskatzen dioenean aparkatzeko denbora mugatu batean itxaroteko, gidariak ordura arteko zerbitzua ordaintzeko eskatu ahal izango dio erabiltzaileari, eta ez du nahitaez zerbitzuarekin jarraitu beharrik izango

*36. artikulua. Erregaia kargatzea.*

Erregaia ez da kargatuko zerbitzua eskaintzerakoan, bidaiariak berariazko baimena ematen ez badio behintzat.

*37. artikulua. Gauzak edo animaliak garraiatzea.*

1. Ibilgailuak Ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzuak bakarrik emateko erabiliko dira, eta alor honetan indarrean dagoen legedia beteko dute. Baimenduta dago taxilariaren atseden denboran eta oporretan ibilgailuaren erabilera pribatua egitea.

2. Taxi lizentzien gidariek bidaiariek daramatzaten fardelak onartuko dituzte, maletategian sar daitezkeen heinean, kalterik sor ez dezaketenean edo edukia dela-eta, indarrean dauden legezko edo erregelamenduzko xedapenak urratzen ez dituztenean.

3. Erabiltzailea ikusmen ezindua denean, bere zakur-gidaria ibilgailuan onartu behar da, betiere, 2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legeak, turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio publikoarenak, 4. artikuluan ezarritako arauak betetzen badira. Kasu horretan izan ezik, ezin izango dira animaliak garraiatu, ibilgailuaren gidariak berariaz horretarako baimena ematen ez badu behintzat.

*38. artikulua. Galdutako gauzak.*

Auto-taxiaren gidariak Errenteriako Udaltzaingoaren egoitzan utzi behar ditu erabiltzaileek ibilgailuaren barruan ahaztuta utzitako objektuak, horiek aurkitzen dituztenetik 48 orduko epean, eta gidariak egoitzan utzitakoaren gaineko egiaztagiria eskatu ahal izango du.

*39. artikulua. Nahitaezko dokumentazioa.*

1. Ordenantza honek arautzen duen zerbitzua eskaintzeko, auto-taxi ibilgailuek ondorengo dokumentazioa izan behar dute:

*Artículo 35. Pago y tiempo de espera.*

1. El pago del importe del servicio ya sea en metálico o con tarjeta de crédito se efectuará una vez finalizado éste, salvo en supuestos en que se pacte con el cliente, adelantar la cuantía del cobro del importe del recorrido, a título de garantía, con la expedición del recibo correspondiente.

2. Cuando la persona usuaria exprese su intención de efectuar el pago del servicio mediante tarjeta bancaria, deberá mostrar dicha intención de forma previa al inicio del servicio. Si el vehículo que le corresponde no dispusiera del sistema para realizar el pago con tarjeta, prestará el servicio el primer vehículo que, siguiendo el orden establecido, dispongo de este sistema de pago.

3. En el supuesto de que la persona usuaria abandone transitoriamente el vehículo y la persona conductora deba esperar el regreso, se podrá recabar a título de garantía y contra recibo, el importe del recorrido efectuado más media hora de espera en zona urbana y una en descampado. Transcurrido dicho tiempo, podrán considerarse desvinculados del servicio.

4. Cuando la persona conductora fuere requerida para esperar al viajero o viajera en lugares con limitación de estacionamiento, podrá reclamar el importe del servicio efectuado, sin obligación de continuar la prestación del mismo.

*Artículo 36. Carga de carburante.*

La carga de carburante no podrá realizarse durante la prestación del servicio, salvo autorización expresa de la persona viajera.

*Artículo 37. Transporte de objetos o animales.*

1. Los vehículos deberán destinarse exclusivamente a la prestación de los servicios a que se refiere esta Ordenanza, cumpliendo la legislación vigente en la materia. Se permite el uso privado del vehículo en periodos de descanso y vacaciones del taxista.

2. Los conductores y conductoras de las licencias de autotaxi admitirán el equipaje y bultos que porten las y los viajeros, siempre que éstos puedan ser introducidos en el portamaletas, no sean susceptibles de producir daños en el vehículo o, por su contenido, no contravengan disposiciones legales o reglamentarias en vigor.

3. En el supuesto de persona usuaria con discapacidad visual, no se podrá negar la compañía de su perro guía en el interior del vehículo, siempre y cuando se cumplan las reglas establecidas en el artículo 4 de la Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo. A excepción de este supuesto, no podrán transportarse animales, salvo que lo consienta expresamente la persona conductora del vehículo.

*Artículo 38. Objetos perdidos.*

El conductor o conductora de auto-taxi está obligada a depositar en las dependencias de la Policía Local de Errenteria los objetos que pudieran haber sido olvidados por las personas usuarias en el interior del vehículo, en el plazo de 48 horas desde que se produjo el hallazgo, pudiendo la persona conductora exigir un justificante de lo depositado.

*Artículo 39. Documentación obligatoria.*

1. Para la prestación del servicio que regula esta Ordenanza, los vehículos auto-taxis deberán ir provistos de la documentación que se reseña a continuación:

1.1. Ibilgailuari dagozkionak:

a) Ibilgailuaren zirkulazio baimena.

b) Ordenantzaren erantzukizun zibileko aseguruaren poliza (7.1.h artikuluan jasoak)

c) Auto-taxia gidatzeko udal lizentzia eta Gipuzkoako Foru aldundiak emandako garraio baimena, hala badagokio hiri arteko zerbitzuak egiteko.

d) Ibilgailuaren fitxa teknikoa, hasiera batean 5 plazatakoa.

e) Ezinduentzat egokitutako ibilgailuen fitxa teknikoa eta homologazioa. Ibilgailu hauek 9 plaza arte izan ditzakete, eskualdeko Taxiaren Batzordearen txostena eskuratu ondoren.

1.2. Gidariari dagozkionak:

a). Gidariaren egiaztagiria, lizentziaren jabe gisa edo soldatapeko gisa.

b). Gidabaimena, gidarien erregelamendu orokorrak eskatutako motakoa, Probintziako Trafikoko Buruzagitzak eginikoa.

1.3. Zerbitzuari dagozkionak:

a) Zerbitzu publikoko plaka.

b). Erreklamazio liburua eta fakturen taloitegia. Lizentziaren zenbakia inprimatuta eramango dute.

c) Tarifa ofizialen taula Udalak emaniko taula hori erabiltzaileen eskura egongo da eskatuz gero.

d) Osasun-establezimenduen, polizia etxeen, suhiltzaileen eta larrialdiko gainerako zerbitzuen helbideak, baita zentro ofizialeena ere.

e) Errenteriako udalerriaren planoa eta kale-izendegia.

f) Ibilbide liburua.

g) Taximetroaren egiaztatze liburuxka, Eusko Jaurlaritzaren dagokion departamentuan emanikoa.

Ahal den kasu guztietan dokumentazioa bi hizkuntza ofizialetan egongo da (euskara eta gaztelania)

*40. artikulua. Erretzeko debekua.*

Debekatuta dago auto-taxien barruen erretzea.

## VI TITULUA

## TARIFAK ETA KONTROL TRESNAK

*41. artikulua. Tarifa araudia.*

1. Ordenantza honek aipatzen dituen hiri zerbitzuak eskaintzea lotuta egongo da indarrean dagoen tarifa araudiari, eta taxilarientzat eta erabiltzaileentzat loteslea eta nahitaezkoa izango da.

2. Debekatua dago baimendu ez diren osagarriak kobratzea, haien izaera edozein dela ere.

3. Itsuen zakur-gidarien eta ezinduei laguntzeko bestelakoak garraiatzeagatik ez da inolako osagarririk ordainduko.

*42. artikulua. Tarifak berrikustea.*

Udalak urtero berrikusiko ditu hiri tarifak, betiere Oarsoaldeako Erregimen Bereziko Zonarako taxi zerbitzua emateko ondorioetarako erabakitakoa errespetatuta. Gerora, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Prezioen Batzordera igorriko dira, behin betiko onar ditzan.

1.1. Referentes al vehículo:

a) Permiso de circulación del vehículo.

b) Pólizas de seguro de responsabilidad civil (recogidas en el art. 7.1.h) de la Ordenanza).

c) Licencia municipal de auto-taxi y autorización de transporte expedida por la Diputación Foral de Gipuzkoa habilitante para la realización de servicios interurbanos, en su caso.

d) Ficha técnica del vehículo que en origen será de 5 plazas.

e) Ficha técnica y homologación de vehículos adaptados para minusválidos, los cuales podrán tener hasta un máximo de 9 plazas previo informe de la Comisión del Taxi de la Comarca.

1.2. Referentes a la persona conductora:

a) Credencial de persona conductora, ya sea como titular de licencia o como asalariado/a.

b) Permiso de conducir, de la clase exigida por el Reglamento General de Conductores, expedido por la Jefatura Provincial de Tráfico.

1.3. Referentes al servicio:

a) Placa de servicio público.

b) Libro de Reclamaciones y libro-talonario de facturas, y que, en todo caso, llevarán impreso el número de licencia.

c) Cuadro de tarifas oficiales. Este cuadro facilitado por el Ayuntamiento deberá ponerse a disposición de las personas usuarias si fuese requerido.

d) Dirección de los emplazamientos de los establecimientos sanitarios, comisarías de policía, bomberos y demás servicios de urgencia, así como de los centros oficiales.

e) Plano y callejero de Municipio de Errenteria.

f) Libro de ruta.

g) Cartilla de verificación del aparato taxímetro, extendida por el Departamento correspondiente de Gobierno Vasco.

La documentación que sea posible se dispondrá en bilingüe (euskera y castellano).

*Artículo 40. Prohibición de fumar.*

Queda prohibido fumar en el interior de los vehículos autotaxi.

## TÍTULO VI

## TARIFAS E INSTRUMENTOS DE CONTROL

*Artículo 41. Régimen tarifario.*

1. La prestación de los servicios urbanos a que se refiere esta Ordenanza está sometida al régimen tarifario vigente, vinculante y obligatorio para taxistas y personas usuarias.

2. Queda expresamente prohibido el cobro de suplementos de cualquier naturaleza que no hayan sido autorizados.

3. El transporte de perros-lazarillo u otros de asistencia a discapacitados no generará el pago de suplemento alguno.

*Artículo 42. Revisión tarifaria.*

Las tarifas urbanas serán revisadas anualmente por el Ayuntamiento, respetando, en todo caso, lo acordado para la Zona de Régimen Especial de Oarsoaldea a los efectos de prestación del servicio de taxi. Posteriormente, serán remitidas a la Comisión de Precios de Euskadi del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco para su aprobación definitiva.

Auto-taxi zerbitzuaren tarifak berrikusteko espedienteak tramitatzen hasiko dira sektoreko elkarteek Udaletxean tarifak berrikusi beharreko aurreko urtearen irailaren 15 baino lehen eskaera aurkezten dutenean.

Eskaera ez balitz aipatu epean aurkeztuko indarrean dauden prezioen indarraldia luzatu dela ulertuko da, eta Udalak horren gaineko akordioa bidaliko du Eusko Jaurlaritzan prezioen politikan eskumena duen Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzara.

Eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztuko dira:

a) Indarrean dauden tarifen taula, onarpen data adierazita, eta proposatzen diren tarifa berriak.

b) Tarifa berrien justifikazio memoria. Horren barruan zerbitzuaren ustiapenaren koste eta diru-sarreren txosten ekonomikoa jasoko da, horiek kontzeptu eta kopuruak banaka adierazita, baita izan dituzten edo izatea aurreikusten diten aldaketak ere.

Udalak espedientea tramitatzeko beharrezko argibide eta dokumentazio guztia eskatu dezake.

Tokiko Gobernu Batzarrak gehienez eskaera jasotzen denetik bi hileko epean hartuko du erabakia, edo, hala badagokio, eskaera bete dela kontsideratzen denetik.

Aipatu epean berariazko ebazpenik eman ezean, Udalak tarifen berrikusketa ontzat eman duela ulertuko da.

Behin Tokiko Gobernu Batzarrak tarifa berriak onartzen dituenean, espedientea Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzara, edo prezioen politikan eskumena duen zuzendaritzara, bidaliko da, prozedura administratiboaren araudian jasotako eran.

Epe barruan ebazpenik emango ez balitz, eskaera egin duten elkarteek eskaeraren kopia bidaliko dute Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzara, edo prezioen politikan eskumena duen zuzendaritzara.

*43. artikulua. Indarrean dauden tarifak, taximetroa eta errezibo emailea.*

1. Lizentziaren titularrek tarifa ofizialen taularen aleak izango dituzte. Taula horiek lizentziari atxikitako ibilgailu barruan gordeko dira eta zerbitzuaren erabiltzaileek kontsultatzeko eskatu ahal izango dituzte.

2. Auto-taxi ibilgailuek taximetroa izan behar dute behar bezala ikuskatua eta zigilatua. Ibilgailuaren barne-aurrealdean kokatuta egongo da bidaiarientzat eta ikuskatze zerbitzuentzat prezioa ikusgai egon dadin.

Taximetroa argiztatuta egon behar du zerbitzua eskaintzerakoan

3. Era berean, taximetroak gutxienez 4 tarifa ezartzeko aukera eman behar du eta erreziboak ematen dituen terminala izango du. Zerbitzuaren jomugara iristean eta kobratzeko unean, erabiltzailearen eskariz, gidariak erreziboa emango dio. Aipatu erreziboan lizentzia zenbakiaz gain, zerbitzuaren eguna, ordua eta kopurua ere jasoko dira.

*44. artikulua. Funtzionamendua.*

1. Taximetroa abian jarriko da zerbitzua abiatzerakoan hiri nahiz hiri arteko ibilbideetan, eta fakturazioa onartutako tarifetan ezarritako prezio finkora egokituko da.

La tramitación de los expedientes de revisión de tarifas del servicio de auto-taxi se iniciará previa solicitud presentada por las asociaciones del sector en el Ayuntamiento, antes del 15 de setiembre del año anterior al año objeto de revisión de las tarifas.

Si la solicitud no se presentare en el plazo señalado se entenderán prorrogados los precios vigentes, y el Ayuntamiento remitirá acuerdo en este sentido a la Dirección de Economía y Planificación a la que sea competente en política de precios del Gobierno Vasco.

La solicitud deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

a) Cuadro de tarifas vigente, con indicación de la fecha de su aprobación, así como cuadro de tarifas propuesto.

b) Memoria justificativa de las nuevas tarifas en la que se incluirá un informe económico de la estructura de costes e ingresos de la explotación del servicio, desglosando los conceptos e importes de los mismos, así como las variaciones que los mismos hayan sufrido y/o se prevea vayan a sufrir.

El Ayuntamiento podrá requerir cuantas aclaraciones y documentación complementaria estime necesarias para la instrucción del expediente.

La Junta de Gobierno Local resolverá en plazo no superior a dos meses a contar desde la fecha de recepción de la solicitud o, en su caso, desde que la misma se considere completa.

Transcurrido dicho plazo sin que se haya dictado resolución expresa, la solicitud de revisión de tarifas se entenderá estimada por el Ayuntamiento.

Aprobadas las nuevas tarifas por la Junta de Gobierno Local, se remitirá el expediente a la Dirección de Economía y Planificación, o a la Dirección que sea competente en política de precios, por cualquiera de los medios previstos en la normativa de procedimiento administrativo.

En caso de no haberse dictado resolución en plazo, las asociaciones solicitantes remitirán copia de su solicitud a la Dirección de Economía y Planificación, o a la Dirección que sea competente en política de precios.

*Artículo 43. Tarifas vigentes, taxímetro y expedidor de recibos.*

1. Las personas titulares de licencia dispondrán de ejemplares del cuadro de tarifas oficiales. Estos cuadros deberán mantenerse en el vehículo adscrito a la licencia y podrán ser solicitados, para su consulta, por las personas usuarias del servicio.

2. Los vehículos auto-taxi deberán ir provistos de un aparato taxímetro, debidamente inspeccionado y precintado, situado en el tercio central de la parte delantera del interior del vehículo, de forma que resulte visible, para el viajero o viajera y para los servicios de inspección, la lectura del precio.

El taxímetro deberá estar iluminado durante la prestación del servicio.

3. Asimismo el taxímetro deberá permitir la aplicación de al menos 4 tarifas y deberá contar con un terminal que posibilite la emisión de recibos. Al llegar al destino del servicio y en el momento de su cobro, a petición de la persona usuaria, el conductor o conductora le hará entrega de un recibo. En dicho recibo, además del número de licencia, deberá figurar la fecha, hora, importe del servicio.

*Artículo 44. Funcionamiento.*

1. El aparato taxímetro entrará en funcionamiento al ponerse en marcha el vehículo en trayectos urbanos y en trayectos interurbanos, y la facturación se ajustará al precio fijo fijado en las tarifas aprobadas.

2. Dena dela, hiri arteko ibilbideetan fakturazioa prezio adostuekin kontratatu daiteke.

3. Zerbitzua eskaintzerakoan taxi ibilgailuan erabiltzaileari egotzi ezin zaion istripu, matxura edo bestelako gorabeheraren bat gertatuz gero, zerbitzua amaitutakoan taximetroan markatzen duen preziotik deskontatu egingo da zerbitzuaren eskaintza etenda egon den denborari dagokion zenbatekoa.

*45. artikulua. Taximetroaren azterketa arrunta.*

1. Taximetro guztiak urtero aztertu ditzake Udalak, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak egin dezakeen azterketa edo ikuskapena bazter utzi gabe.

2. Lizentzien jabeek zuritu egin behar dute Eusko Jaurlaritzak egindako azterketa nahiz Udalak egindakoa gainditu izana, ikuskatze zerbitzuek edo Udaltzaingoan eskatutakoan.

*46. artikulua. Taximetroaren ez ohiko azterketa.*

Udalak edozein unetan agindu eta egin dezake taximetro guztien edo batzuen azterketa, nagusiki alderdi hauek egiaztatzeko:

1. Aparatuak bidaiaren prezioaren zenbatekoak argi eta zehatz markatzen dituela, indarrean dauden tarifa ofizialen arabera

2. Zigilu ofizialen egoera.

3. Aparatuak ez dezala izan kaxa kolpatua, behartua edo manipulatua izan delako itxura ematen duen zulorik, ez kolperik ez eta seinalerik ere.

*47. artikulua. Akatsak.*

Urteroko azterketa dela edo ez ohiko azterketa dela edo partikularren baten salaketa dela, akatsen bat antzemanez gero taximetroaren kokapenean, funtzionamenduan edo beste baldintzaren batean, ibilgailua zerbitzutik kenduko da berehala, eta ez da zerbitzua eskaintzen hasiko ahalik eta akatsa antzeman duen agintaritzak edo udal zerbitzuek akatsa konpondu izanari onarpena eman arte.

VII TITULUA

ESKUBIDEAK ETA BEHARKIZUNAK

*48. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.*

Auto-taxi zerbitzuen erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

1. Ezagutzea lizentzia zenbakia eta zerbitzuei aplikagarri zaizkien tarifak. Horretarako, aipatu datuak ibilgailuaren barruan ikusgai egongo dira.

2. Fardelak garraiatzea, Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera. Fardel horiek gidariak jarriko ditu ibilgailuaren barruan horretarako prestatutako lekuan.

3. Ordainagiria edo faktura jasotzea, prezioa, zerbitzuaren abiapuntua eta helmuga eta zerbitzuaren jabearen lizentzia zenbakia adierazita.

4. Zerbitzua eskaintzeko egokitzat jotzen duen ibilbidea aukeratzea, Ordenantza honetako 33. artikuluko aurreikuspenen arabera

5. Gidariari ibilgailu barruan ez erretzeko eskatzea.

2. No obstante, en el supuesto de trayectos interurbanos la facturación podrá contratarse con precios pactados.

3. Si durante la prestación del servicio hubiere ocurrido en el vehículo auto-taxi algún accidente, avería u otras incidencias no imputables a la persona usuaria, se descontará del precio que marque el taxímetro, al finalizar el servicio, la suma correspondiente al tiempo en que hubiere estado suspendida la prestación de aquél.

*Artículo 45. Inspección ordinaria del taxímetro.*

1. Todos los aparatos taxímetros, sin perjuicio del examen o reconocimiento a que puedan quedar sometidos por parte del Departamento correspondiente del Gobierno Vasco u organismo equivalente, podrán ser revisados en cualquier momento por el Ayuntamiento.

2. Los titulares de las licencias tendrán la obligación de justificar, cuando sean requeridos por la Policía Local, la superación, tanto de la revisión realizada por el Gobierno Vasco, como de la revisión municipal, en su caso.

*Artículo 46. Inspección extraordinaria del taxímetro.*

El Ayuntamiento podrá, en cualquier momento, ordenar y proceder a la revisión de todos o algunos de los taxímetros, a fin de comprobar, principalmente los extremos siguientes:

1. Que el aparato marca, clara y exactamente, las cantidades devengadas como importe del viaje, con arreglo a las tarifas oficiales en vigor.

2. El estado de los precintos oficiales.

3. Que el aparato no presente orificios, abolladuras o señales de haber sido golpeado, forzado o manipulado en su caja.

*Artículo 47. Deficiencias.*

Si como resultado de las revisiones anuales o extraordinarias o denuncia de particular, se observare alguna deficiencia en la colocación, funcionamiento u otra condición del taxímetro, se procederá a la inmediata retirada del vehículo del servicio, no pudiendo retornar al mismo mientras la autoridad o servicios municipales que observaron la deficiencia no otorguen su aprobación a la subsanación realizada.

TÍTULO VII

DERECHOS Y OBLIGACIONES

*Artículo 48. Derechos de las personas usuarias.*

La persona usuaria del servicio de auto-taxi ostenta los siguientes derechos:

1. Conocer el número de licencia, marca y matrícula del vehículo y cuadro tarifario, a cuyo efecto tales datos figurarán en lugar visible dentro del vehículo.

2. Transporte de equipajes, de acuerdo con lo establecido en la presente Ordenanza, así como que tales equipajes sean colocados por el o la conductor en el lugar del vehículo apropiado al efecto.

3. Obtención de recibo en el que conste el precio, origen y destino del servicio, así como número de licencia de la persona titular del servicio.

4. Escoger el recorrido que considere más adecuado para la prestación del servicio de acuerdo con las previsiones del artículo 33 de esta Ordenanza.

5. Exigir a quien conduce que no fume en el vehículo.

6. Zerbitzua higiene, zaintza eta segurtasun baldintza egokiak dituen ibilgailuan jasotzea, indarrean dauden xedapenei jarraiki.

7. Ibilgailura erosotasun eta segurtasun baldintzetan sartu ahal izatea. Mugitzeko zailtasunak dituzten erabiltzaileek eta haurrekin doazenek zerbitzua eskaintzen duten gidarien laguntza jasoko dute ibilgailua hartzerakoan eta handik jaisterakoan. Halaber, lagundu egingo diete fardelak erabiltzaileek mugitzeko behar dituzten aparatuak, hala nola gurpil-aulkiak edo haur-kotxeak sartzen, esertzen eta heltzeko elementuak lotzen (euskarriak edo ta segurtasun uhala).

8. Ibilgailu barruan erosotasun baldintzak ezartzea, eta horretarako gidariari eskatzea:

— Berogailua eta aire girotua piztu edo itzaltzeko.

— Ibilgailuan instalatutako irratia eta bestelako irudi eta soinu aparatuak itzali edo horien bolumena graduatzeko, irrati-taxi emisoraren konexio sistemarena izan ezik. Hala ere, azkeneko kasu horretan bolumena jaisteko eskatu ahal izango dute.

— Ibilgailuaren barruko argia pizteko, sartzeko nahiz ateratzeko eta zerbitzua ordaintzeko unean.

9. Ibilgailura igotzea nahiz ibilgailutik jaistea, pertsonen, zirkulazioaren eta ibilgailuaren segurtasuna nahikoa bermatzen den lekuetan.

10. Zakur-gidariarekin edo zakur laguntzaileekin joatea, ezinduen kasuan.

Erabiltzaileak ikusteko ezgaitasun larria duenean –adierazi egin duelako edo agerikoa delako– auto-taxiaren gidariak laguntza eskainiko dio ibilgailura igotzeko eta handik jaisteko, eta zerbitzua zein leku zehatzetan amaitu den adieraziko dio eta helmugara oinez iristeko zein norabide hartu behar duen eta zein ibilbidea egin behar duen jakinarazi.

11. Gidariak gizalegez tratatua izatea.

12. Egokitzat jotzen dituen erreklamazioak aurkeztea, taxiaren erreklamazio liburuan nahiz Errenteriako Udalean. Erreklamazio liburuak kalkagarri diren hiru inprimaki izango ditu: Bat Administrazioarentzat, bestea, garraiolariarentzat eta, hirugarrena, berriz, erabiltzailearentzat.

Hori guztia, kontsumitzaile eta erabiltzaileak babestearen inguruko legeetatik eratorritako eskubideen kalterik gabe.

*49. artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak*

Auto-taxi zerbitzuaren erabiltzaileak ondorengo betebeharrak ditu:

1. Zerbitzua ordaintzea, indarrean dagoen tarifa erregimenaren arabera.

2. Zerbitzuak irauten duen bitartean portaera zuzena izatea eta ibilgailua gidatzea eragotzi edo oztopatu gabe, eta arriskurik ez sortzea, gidariari, ibilgailuari edo zerbitzuarekin zerikusirik ez duten hirugarren pertsonei.

3. Ibilgailuaren elementurik ez manipulatzea, ez haustea eta ez hondatzea.

6. Recibir el servicio con un vehículo que reúna las adecuadas condiciones de higiene, estado de conservación y seguridad, con respeto a las disposiciones que lo regulan.

7. Acceder al vehículo en condiciones de comodidad y seguridad. Así, las y los conductores que prestan el servicio deberán ayudar a subir y bajar del vehículo a las personas usuarias con movilidad reducida a las que transportan, así como a las que vayan acompañadas de niños y niñas que necesiten cochecitos para desplazarse. Igualmente, deberán ayudar a cargar el equipaje o los aparatos que las personas usuarias puedan precisar para desplazarse, como sillas de ruedas o coches de niños y niñas, a acomodarse y a ajustarse los elementos de sujeción (anclajes y/o cinturón de seguridad).

8. Determinar las condiciones de confort en el habitáculo, y a tal efecto requerir al conductor o conductora:

— El encendido o apagado de la calefacción y del aire acondicionado.

— La desconexión o modulación del volumen del receptor de radio y demás aparatos de imagen o sonido instalados en el vehículo, con la excepción del sistema de conexión con la emisora de radio-taxi, si bien en este caso podrá solicitar la reducción del volumen.

— El encendido de la luz interior del vehículo, tanto para acceder o bajar al mismo, como en el momento de pagar el servicio.

9. Subir y bajar del vehículo en lugares donde queden suficientemente garantizadas la seguridad de las personas, la correcta circulación y la integridad del vehículo.

10. Poder ir acompañado de perro lazarillo u otros perros de asistencia, en el caso de personas con discapacidad visual.

Así mismo, cuando la persona usuaria sea una persona con discapacidad visual grave –porque así lo haya manifestado o porque ello resulte evidente–, la persona conductora del auto-taxi deberá ofrecer al mismo su ayuda para subir y bajar del vehículo, así como informarle sobre el lugar exacto donde hubiera parado en destino, y una orientación sobre la dirección que debería tomar caminando para ir a su destino final.

11. Ser tratado por el conductor o conductora con la debida corrección.

12. Formular las reclamaciones que estimen pertinentes tanto en el Libro de Reclamaciones del auto-taxi como en el Ayuntamiento de Errenteria. El Libro de Reclamaciones contará con tres impresos calcables: Uno para la Administración, otra para la persona transportista y una tercera para la persona usuaria.

Todo ello sin perjuicio de los derechos derivados de la legislación sobre protección a las personas consumidoras y usuarias y demás que resulten de aplicación

*Artículo 49. Deberes del personal usuario.*

La persona del servicio de auto-taxi tiene los siguientes deberes:

1. Pagar el precio del servicio, de acuerdo con el régimen tarifario vigente.

2. Observar un correcto comportamiento durante el servicio, sin interferir o molestar en la conducción del vehículo, y de forma que no se genere riesgo, tanto para la integridad de la persona conductora o el vehículo como para terceras personas ajenas al servicio.

3. No manipular, destruir ni deteriorar ningún elemento del vehículo.

4. Gidariak zerbitzu hobe bat emateko emandako jarraibideak errespetatzea, betiere, aurreko paragrafoan aipatzen diren eskubideak urratzen ez badira behintzat.

5. Adin txikikoekin bidaiatzen duten erabiltzaileek haien portaeraren erantzule izango dira eta eragotzi egingo dute haiek ateen aseguruak manipulatzea, kristalak igo edo jaistea, giltzak eta etengailuak eragitea eta gidariaren arreta galarazi dezaketen zaratak egitea.

6. Zerbitzuak irauten duen bitartean ez jatea ez edatea, gidariaren berariazko baimenik izan ezean.

7. Ordenantza honetan aurreikusitako arauak eta portaera onaren arauak betetzea.

*50. artikulua. Debekuak.*

Auto-taxi lizentzien jabeek debekatua dute:

1. Indarrean dauden tarifetan ezarritako prezioa baino handiagoa eskatzea, edozein aitzakia dela ere.

2. Zerbitzuak eskaintzea, 2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legeak, turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta Herriarteko Garraio Publikoarenak, eta aplikagarri diren gainerako araudietan ezarritako bestelako eraren batean.

3. Zerbitzua eskaintzean jatea, edatea edo erretzea.

4. Taxi gidariek ezin dute eserlekuetan eraman zerbitzuarekin zerikusirik ez duten hirugarren pertsonarik, ikasketa fasean ez bada behintzat, eta, betiere, bezeroak berariaz baimendu ondoren.

## VIII TITULUA

## ZIGOR ERREGIMENA

*51. artikulua. Zigor erregimena.*

2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legeak, turismo ibilgailuetan bidaiarien Hiri eta Herriarteko Garraio Publikoarenak, aurreikusten duen zigor erregimena aplikatuko da.

Dena dela, arau hauste arintzat hartuko da Ordenantza honetan jasotako betebeharrak edo arauak ez betetzea, betiere legean berariaz larritzat edo oso larritzat hartua ez badago.

Ordenantza honekiko arau hausteengatik zigorra jartzea Alkatearena edo bera ordezkatzen duenaren eskumena da.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehen xedapen gehigarria. Erregimen osagarria*

Ordenantza honetan aurreikusi gabekoa arautzeko izaera orokorreko lege eta araudiek gai honetan xedatzen dutena beteko da.

*Bigarren xedapen gehigarria. Gai honetan indarrean dagoen bestelako legedia.*

Ordenantzarekin batera ondorengo xedapenak aplikagarriak dira, harik eta berariaz indargabetu edo ordezkatzen ez diren arte:

— Oarsoaldeako erregimen bereziko zona, taxi zerbitzua emateko ondorioetarako (Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatuaren 2006ko otsailaren 6ko Foru Agindua. 2007ko otsailaren 22ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 38. zk.).

— Errenteriako eta Oiartzungo taxiaren elkarlanerako akordioa, 2010eko otsailaren 26koa.

4. Respetar las instrucciones de la persona conductora para una mejor prestación del servicio, siempre que con ello no se vulnere ninguno de los derechos a que se refiere el artículo anterior.

5. Las personas usuarias que viajen acompañadas de menores responderán de su comportamiento, impidiendo que éstos manipulen los seguros de las puertas, eleven o bajen cristales, accionen llaves e interruptores u ocasionen ruidos molestos susceptibles de distraer la atención de quien conduce.

6. Abstenerse de comer y beber durante el servicio, salvo autorización expresa del conductor o conductora.

7. Cumplir en general las normas previstas en la presente Ordenanza y las normas generales de buena conducta.

*Artículo 50. Prohibiciones.*

Los conductores y conductoras del servicio de auto-taxi tienen terminantemente prohibido:

1. Exigir, bajo pretexto alguno, un precio superior al que corresponda, de acuerdo con las tarifas vigentes.

2. Prestar servicios de forma diferente a la contemplada en la Ley 2/2000 del 29 de junio de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo y demás normativa de aplicación.

3. Comer o beber durante la prestación del servicio.

4. Llevar en los asientos a terceras personas extrañas a la persona usuaria del servicio, salvo personas en fase de aprendizaje y, en todo caso, previa autorización expresa del cliente.

## TITULO VIII

## REGIMEN SANCIONADOR

*Artículo 51. Régimen sancionador.*

Será de aplicación el régimen sancionador previsto en la Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo

En cualquier caso, serán conductas constitutivas de infracción leve, el incumplimiento de cualquier obligación y cualquier vulneración de lo preceptuado en la presente ordenanza, no calificada expresamente en la ley como grave o muy grave.

La imposición de las sanciones por infracción a esta Ordenanza corresponderá al Alcalde u órgano en quien delegue.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

*Disposición adicional primera. Régimen supletorio*

En lo no previsto en la presente Ordenanza se estará a lo que sobre el particular determinen las Leyes y Reglamentos de carácter general.

*Disposición adicional segunda. Otra normativa en vigor con relación en la materia.*

Junto a la Ordenanza también son de aplicación las siguientes disposiciones, en tanto no sean derogadas expresamente, o sustituidas por otras.

— Zona de régimen especial de Oarsoaldea a los efectos de prestación del Servicio de Taxi. (Orden Foral de 6 de febrero de 2006, del Diputado para la Ordenación y Promoción Territorial. BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 22 de febrero de 2007, n.º 38).

— Acuerdo de colaboración del Taxi de Errenteria y Oiartzun, 26 de febrero de 2010.

— Auto-taxi zerbitzuaren funtzionamendu arauak herrian prestatutako geralekuetan (1994ko otsailaren 25eko Udalbatzaren akordioa).

*Hirugarren xedapen gehigarria. Gidaridun ibilgailuen errentamendu berezia.*

1. Gidaridun ibilgailuen errentamendu bereziko jarduera egiteko, horretarako bideratu nahi den ibilgailu bakoitza gaitzen duen baimena lortu behar da. Gipuzkoako Foru Aldundiak emango du, Errenteriako Udalak eta Gipuzkoako Taxi Batzordeak txostena egin ondoren.

2. Baimen hori lortzeko beharrezkoa da udal lizentziaren eta turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio publikoko zerbitzua eskaintzea gaitzen duen baimena izatea, eta baldintza hauek bete behar dira:

a) Errentamendu bereziko jarduerara bideratuko ibilgailua izatea, eta Garraio Departamentuaren agindu bidez ezarritako ezaugarriak bete behar ditu (zilindrada, altuera, neurriak, barne ekipamendua, maletategia, klimatizazio sistema eta komunikazio sistemak) edo, bestela, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituen ibilgailu historikoa izatea.

b) Errentamendu bereziko jarduerara bakarrik bideratutako eta jendeari irekitako lokala edo bulegoa izatea, lokalak edo bulegoak irekitzeko legeak ezarritako baldintzak beteta.

3. Gidaridun errentamendu bereziko zerbitzua eskaintzea bateraezina izango da turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio zerbitzu arrunta eskaintzearekin.

4. Gidaridun ibilgailuen errentamendu bereziko zerbitzua baimena helbideratuta dagoen udalerrian kokatutako errentatzailearen bulegoetan edo lokaletan kontratatu behar da, eta ibilgailuan eraman behar da kontratuaren egiaztagiriaren kopia. Kontratazioa aurrez aurre nahiz edozein komunikazio sistemaren bidez egin daiteke (telefonoa, faxa, posta elektronikoa eta abar).

5. Ibilgailu horiek ezin dira bide publikoan egon eta bide publikoan ibili bezero bila; halaber, ezin dute aurretik zerbitzua kontratatu ez duen inor hartu.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehen Xedapen Iragankorra. Ordenantza hau indarrean sartzen denean gidariaren egiaztagiria lortzea.*

1. Ordenantza hau indarrean sartzen denean, lizentzien jabeek edo soldatapeko gidariek gidari egiaztagiriaren jabe egingo dira 20. artikuluan adierazitako probak egin beharrik gabe.

2. Egiaztagiria amaitu edo iraungiz gero, IV Tituluaren I kapitulua aplikatuko da bete-betean, eta, hala behar denean, probak egingo dira.

— Normas de funcionamiento del servicio de Auto-Taxis en las paradas habilitadas en los diversos lugares de la villa. (Acuerdo de Pleno de 25 de febrero de 1994).

*Disposición adicional tercera. Arrendamiento especial de vehículos con persona conductora.*

1. Para la realización de la actividad de arrendamiento especial de vehículos con persona conductora, será precisa la obtención para cada vehículo que se pretenda dedicar a la misma de una autorización que habilite al efecto, expedida por la Diputación Foral de Gipuzkoa, previo informe del Ayuntamiento de Errenteria y de la Comisión del Taxi de Gipuzkoa.

2. Para obtener dicha autorización es necesario ser titular de licencia municipal y autorización que habilite para la prestación del servicio de transporte público urbano e interurbano de personas viajeras con vehículos de turismo, y deberán observarse los siguientes requisitos:

a) Disposición de un vehículo dedicado a la actividad de arrendamiento especial que reúna las características sobre cilindrada, longitud, altura, dimensiones, equipamiento interior, maletero, sistema de climatización y sistemas de comunicación que se fijen en la Orden del Departamento de Transportes o bien disposición de un vehículo histórico que tenga los requisitos exigidos por la normativa vigente en esta materia.

b) Disposición de, al menos, un local u oficina dedicada exclusivamente a la actividad de arrendamiento especial, abierto al público, previo cumplimiento de los requisitos legales sobre apertura de locales u oficinas.

3. La prestación del servicio especializado de arrendamiento especial de vehículos con persona conductora será incompatible con la prestación del servicio ordinario de transporte urbano e interurbano en automóviles de turismo.

4. El servicio de arrendamiento especial de vehículos con persona conductora deberá contratarse previamente en las oficinas o locales del arrendador situados en el municipio en el que esté domiciliada la correspondiente autorización, debiendo llevarse a bordo del vehículo copia acreditativa del contrato. La contratación podrá hacerse bien personalmente o a través de cualquier sistema de comunicación (teléfono, fax, correo electrónico etc.).

5. En ningún caso podrán los correspondientes vehículos aguardar o circular por las vías públicas en busca de clientes, ni realizar la recogida de los que no hayan contratado previamente el servicio.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Disposición transitoria primera. Obtención del permiso municipal de persona conductora a la entrada en vigor de la presente ordenanza.*

1. Las personas titulares de licencia o personas conductoras asalariadas a la entrada en vigor de la presente Ordenanza dispondrán del correspondiente permiso municipal de conductor o conductora sin necesidad de realización de las pruebas indicadas en el artículo 20.

2. En el supuesto de finalización de dicha acreditación o de caducidad de la misma, se aplicará el capítulo I del Título IV en su integridad, procediéndose, en su caso, a la realización de las correspondientes pruebas.

*Bigarren Xedapen Iragankorra. Udal lizentziaren titularitatea eta pertsona juridikoak herri arteko baimena lortzea.*

1. Ordenantza hau indarrean sartzen denean pertsona juridiko baten izenean udal lizentziarik eta herri arteko baimenik balego, titularitatea izaten jarraitu ahal izango dute. Dena den, Ordenantza honetako baldintzak betetzen dituen gidari pertsona fisiko bat atxiki beharko da, eta horrek bakarrik izango du ibilgailua gidatzeko baimena.

2. Lizentzia horiek ezin dira pertsona juridikoei eskualdatu.

*Hirugarren xedapen iragankorra. Hiri garraiorako udal lizentzia eta herri arteko baimen bat baino gehiago izatea.*

1. Ordenantza hau indarrean sartzean, hiri garraiorako udal lizentzia eta herri arteko baimen bat baino gehiago duten jabeek, jabetzarekin jarraitu ahal izango dute. Dena den, lizentzia bakoitzaren benetako gidariak eskainiko du zerbitzua eta gainerakoak ustiatu egingo dira, prekarioan, soldatapeko gidariaren bidez, Ordenantza honetako baldintza guztiak beteta.

2. Nolanahi ere, jabeak ustiatzen ez duen lizentziari dagokion ibilgailua edo soldatapeko gidaria ordezkatuz gero, lizentzia eman duen Administraziora itzuliko da modu automatikoan.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

*Xedapen indargabetzaile bakarra.* Bertan behera geratzen dira 1998ko urriaren 30ean Udalbatzak ondartutako Auto-taxi zerbitzuaren Udal Araudia eta Ordenantza honekin bat ez datozen Errenteriako Udalaren gainerako xedapenak.

## AZKEN XEDAPENAK

*Amaierako lehen xedapena.* Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunean.

*Amaierako bigarren xedapena.* Baimena ematen zaio Alkatetzari, edo berak ordezkatzen duen organoari, Ordenantza honen interpretazio eta ezarpen egokirako behar diren ebazpen eta jarraibide guztiak eman ditzan.

Errenteria, 2013ko irailaren 23a.—Jon Txasko Orgilles, Trafiko eta Garraio Ordezkaria.

(4016) (8852)

*Disposición transitoria segunda. Titularidad de licencia municipal y autorización interurbana por persona jurídica.*

1. Si a la entrada en vigor de la presente Ordenanza existiere una licencia municipal y autorización interurbana a nombre de una persona jurídica, podrán seguir ostentado la titularidad de la misma. No obstante, se deberá adscribir una persona física conductora con los requisitos establecidos en la presente Ordenanza, única autorizada para la conducción del vehículo.

2. Estas licencias no podrán ser objeto de transmisión a personas jurídicas.

*Disposición transitoria tercera. Titularidad de más de una licencia municipal urbana y autorización interurbana.*

1. Las personas titulares de más de una licencia municipal urbana y autorización interurbana en el momento de la entrada en vigor de la presente Ordenanza podrán seguir ostentando las mismas. No obstante, deberán ser las y los conductores efectivos de una de las licencias y explotar las demás, con carácter precario, mediante persona conductora asalariada con cumplimiento de la totalidad de los requisitos de esta Ordenanza.

2. En todo caso, la sustitución de vehículo o persona conductora asalariada de la licencia no explotada efectivamente por la persona titular de la misma implicará automáticamente la reversión de la misma a la Administración.

## DISPOSICION DEROGATORIA

*Disposición derogatoria única.* Queda derogado el Reglamento municipal del Servicio de Auto-Taxi aprobado por acuerdo plenario de 30 de octubre de 1998 y todas aquellas disposiciones emanadas por el Ayuntamiento de Errenteria que no se ajusten a la presente Ordenanza.

## DISPOSICIONES FINALES

*Disposición final primera.* La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Disposición final segunda.* Se autoriza a la Alcaldía, u órgano en quien delegue, para dictar cuantas resoluciones e instrucciones resulten necesarias para la adecuada interpretación y aplicación de esta Ordenanza.

Errenteria, a 23 de setiembre de 2013.—El Delegado de Tráfico y Transportes, Jon Txasko Orgilles.

(4016) (8852)